

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Otsailaren 13ko 84/2018 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, onartzen duena lankidetzaren Hitzarmena izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialaren artean, zergen arloko datu jakin batzuk lagatzeko

Apirilaren 1eko 4/2014 Lege Orokorrak, merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialenak, 8. artikuluan ezartzen du entitate horiek nazioko lurraldean merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen edo nabigazioaren arloetako jarduerak egiten dituzten nazioko zein atzerriko pertsona fisiko eta juridikoen errolda publikoa egingo dutela, eta horretarako zerga administrazio eskudunaren eta beste administrazio batzuen laguntza jasoko dutela (behar den informazioa emango diete); informazioa konfidentziasunarekin landu behar dute eta ezarritako xederako baino ezin dute erabili.

Aurrekoari hauxe gehitzen dio artikuluko bereko bigarren paragrafoak: zerga administrazioek aurreko errolda hori egiteko behar diren jarduerak ekonomikoaren gaineko zergaren datuak eta errolda datuak emango dizkie Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialari eta merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialei. Zerga administrazioek ematen dituzten datuak ganbera bakoitzeko osoko bilkurak finkatzen dituen langileek soilik erabiliko dute.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 92. artikuluan printzipio orokor hau ezartzen du: zerga administrazioak bere egitekoetan ari dela eskuratzen dituen datuak, txostenak eta aurrekariak isilpekoak dira eta berak kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko soilik erabili ahal dira, eta ezin zaizkie laga hirugarrenei, ez jakinarazi. Hala ere, printzipio orokor horrek hainbat salbuespen dauzka; honako hau, besteak beste: lagapenaren xedea izatea "Arabako Merkataritza eta Industria Ganberari eta Merkataritza Ganbaren Kontseilu Nagusiari enpresen errolda publikoa egiten laguntzea, martxoaren 22ko 3/1993 Legeko 17.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (4/2014 Legeak indargabetzen du; 8. artikulua)" (I idatz zatia).

Nolanahi ere, hitzarmen hau aplikatuta informazioa hornitzen denean, herritarren ohore-rako eskubidea eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea errespetatu beharko dira eta hitzarmen hau dela bide zerga administrazioak emandako informazioa erabiltzen duten ganberetako langileek zerga administrazio funtzionarioen isiltasun betebeharrak bera izango dute informazio horri dagokionez.

Azaldutakoa oinarritzat hartuta, bidezkoa da Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak informazioa elkarri lagatzeko sistema egonkorra ezartzea. Bi alderdiek badakite zein garrantzitsua den informazioa modu egokian erabiltzea, hau da, datuak isilpean edukitzea eta herritarren intimitaterako eskubidea bermatzea.

Lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari dagokio, otsailaren 25eko 23/97 Foru Dekretuak, lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeko Diputatuen Kontseiluaren ahalmena diputatu nagusiaren eta foru diputatuen esku uzten duenak, xedatutakoaren ondorioz.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Onartzea Lankidetzaren Hitzarmena izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialaren artean, zergen arloko datu jakin batzuk lagatzeko. Hitzarmena eranskin moduan ageri da.

Gasteiz, 2018ko otsailaren 13a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ